



GARRALDAko Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2024ko martxoaren hogeita bostean, arratsaldeko zazpitan, Udal Korporazioak bilkura berezia egin du, lehenengo deialdian, legalki deituta, Alkate anderearen zuzendaritzapean eta jarraian adierazten diren zinegotzi jaun-andereak bertan zirela. Honako hauek izan dira aztertutako EGUNEKO GAIAK:

Bertaratutakoak:

Alkate anderea: Begoña Munárriz Guezala

Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte.

BAKARRA.- BALORAZIO PONENTZIAREN BATZORDE MISTORAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Behin amaituta Balorazio Ponentzia jendaurrean egoteko epea, 2024ko otsailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (31 zk.) ateratako iragarriaren bidez izapidetua, eta alegaziorik aurkeztu ez denez, Batzorde Mistoaren ordezkariak izendatu behar dira, eta, beraz, bilkura berezi honetara deitu da.

12/2006 Foru Legeak, azaroaren 21ekoa, Nafarroako lurralde aberastasunaren eta katastroen erregistroari buruzkoa, 36. artikuluko 3. paragrafoan honako hau ezartzen du Batzorde Mistoaren osakerari dagokionez:

"Udal bakoitzerako Batzorde Mistoa lankidetza teknikoko organoa da, Udal Balorazio Ponentziaren edukia finkatzeko sortua, eta eraginpeko Udalaren hiru ordezkari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hiru ordezkari osatuko dute, Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak izendatuak bertako teknikarien artean."

Horrenbestez, Garraldako Udalbatzak hiru ordezkari izendatu behar ditu, eta osoko bilkuran honako hauek izendatzea erabaki du:

- Begoña Munárriz Guezala anderea
- Ion Iriarte Pedroarena jauna
- Miguel José Barberena del Rio jauna

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko zazpi eta erdiak zirela. Akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.